

ARATUSTEEN

ESPERIENTZIA MAGIKOA

BEGOÑAZPI IKASTOLAN, ARATUSTEAK BETI IZATEN DIRA
IKASI, MOTIBATU ETA GOZATZEKO ARRAZOI



GEHIAGO

FAMILIAK, IKASTOLAKO
JANTOKIAN

FIRST LEGO LEAGUE
LEHIAKETAN, SARIA

FILOSOFIA
OLINPIADAKO
FINALERA



Aratustekak, dibertsioa eta ikaskuntza

Begoñazpi Ikastolan, aratustekak beti izaten dira ikasi, motibatu eta gozatzeko arrazoi. Haur Hezkuntzako txikiak espazioan oinarrituz, izar, estralurtar, planeta eta astronauta bihurtu jakuz. Eta Lehen Hezkuntzan, animalia guztiak etorri jakuz Ikastolara: igelak, lehoiak, behiak, oreinak, loroak, hontzak... Hau da hau esperientzia magikoa!



ROBOTAREN DISEINUAREN SARIA FIRST LEGO LEAGUEN

First Lego League lehiaketan robotaren diseinuaren saria lortu dogu. Lehiaketa hau ikasleentzat esperientzia itzela izan da. Zientzia, teknologia eta robotikaren ezagutzak erakutsi dabez.

[MORE INFO](#)



LH-KO IKASLEEN AURKEZPENAK, YOUTUBEREN ZERRENDAN



Ikasle bat, Filosofia Olinpiadako finalera

Begoñazpi Ikastolak lehenengoz parte hartu dau Euskadiko Filosofia Olinpiadetan. Beste 45 ikastetxetako zenbait ikaslegaz batera, ikasle dogun Ane Belloso, disertazio kategorian, finalera heldu da.

[MORE INFO](#)



Lehen Mundu Gerra eta historia, zineman

DBH 4. mailako ikasleek Golem Alhóndigan, San Mendesen '1917' filma ikusi dabe. Zalantzarik gabe, Geografia eta Historia irakasgaia eroangarriago egiten jake.



HHko proiektuak familiak jantokira eroan dauz

Giza gorputzaren, nutrizio-piramidearen eta elikaduraren gaineko proiektuari ekinez, familiak 5 urteko txikiei jantokira lagundu deutsie. Ohitura osasungarrietan Ikastola ezezik, familiak be bat datoz eta.

[MORE INFO](#)